

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

ANTEZANA DE LA RIBERAKO ADMINISTRAZIO BATZARRA

Lurzatiak lagatzea VI-10105 Antezana de la Ribera ehiza barrutia berritzeko

Antezana de la Ribera izeneko VI-10105 ehiza barrutia berritzean sartuta egongo direnez horretarako ezarritako inguruaren barruan dauden lurzati guztiak, titulartasun pribatukoak zein publikokoak, Antezana de la Riberako Administrazio Batzarra eragindako lurren jabeen baimenak biltzen ari da, Euskadiko Ehizaren martxoaren 17ko 2/2011 Legeak 21. artikuluan xedatutakoaren arabera.

Lurzati publikoen artean, onura publikoko mendi (OPko mendi) hau dago:

– La Lastra y Pinas 859 zenbakiko OPko mendia Antezana de la Riberako Administrazio Batzarraren jabegokoa.

OPko mendi horren kartografia espedientean jasota dago. Espediente hori kontzeju honetan dago interesdunen esku.

Iragarki hau ALHAOn argitaratu eta hamabost egun balioduneko epean kontrako idazkirik aurkezten ez dutenek isilbidezko baimena eman dutela ulertuko da eta administrazio batzar honek baimena duela ehiza barruti horretan sartzeko ezarritako epean kontra agertzen ez diren lurzati eta finka guztiak.

Guztiek jakin dezaten eta dagozkion ondorioak izan ditzan argitaratzen da.

Antezana de la Ribera, 2026ko martxoaren 26a

Lehendakaria

JESÚS BERGANZA GONZALEZ